

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

**LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA**

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Landa Garapenak 10 milioi euro jarri ditu nekazaritza-ustategietan inbertitzeko, 2015ean baino % 60 gehiago

2 milioi dira Nafarroako kanalaren eremuko ureztapen-ekipamenduetarako eta 8 milioi gainerako inbertsioetarako

Ostirala, 2016.eko irailak 9

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentuak 10 milioi euro jarri ditu nekazaritza-ustategietan inbertitzeko, 2015ean baino % 60 gehiago.

Horietatik, [2 milioi dira Nafarroako kanalaren eremuko ureztapen-ekipamenduetarako](#) eta [8 milioi bestelako inbertsioak egiteko](#).



Ekilore-soroa.

Bi laguntza-ildo horiek Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) argitaratu dituzte, Ignacio Gil zuzendari nagusiaren bi erabakiren bitartez:

8 milioiko deialdia gaur, hilak 9; eta 2 milioiko deialdia joan den ostiralean, hilak 2. Laguntza horiek [nekazari gazteak beren gain jartzeko](#) 3,5 milioi euroko laguntzei gehitu dizkiete; gazteentzako laguntza horiek abuztuaren 25ean argitaratu zituzten.

13,5 milioi euroko laguntzak

Gauzak horrela, 13,5 milioi euro banatuko dira laguntzen bidez, eta 2014-2020 aldiko Landa Garapeneko Planaren barruan ez da aktibo fisikoetan inbertitzeko deialdi gehiago egongo, gaur goizeko prentsaurrekoan Isabel Elizalde kontseilariak esan duenaren arabera.

"Aurrekontu aldetik ahalegina egiteak merezi duela uste dugu. Gure politikan lehentasunezko ardatza da. Esan genuen duela urtebete: Departamentuaren asmoa da, batetik, gastua desberdin bideratzea; eta bestetik, lehentasunen ordena aldatzea. Nekazaritza-aktiboaren galera eten eta nekazaritza-elikagaien balio kate osoko lehen sektore berritzaile eta dibertsifikatua sustatu eta babestu nahi dugu".

Elizaldek adierazi du nekazaritza-ustategietan inbertitzeko laguntzen bi deialdietan (guztira 10 milioi euro banatuko dituzte) 180 eskari inguru jasotzea espero dutela. Horrek esan nahi du lurraldean 33 milioi euroko inbertsio pribatua egingo dela.

Nekazari gazteak beren gain jartzeko laguntzetan 3,5 milioi euro banatuko dituzte, 2015ean baino % 40 gehiago.

Aurtengo aurrekontuarekin 93 gazte ingururi lagunduko diete nekazaritza-jardueran finkatzen; 2015ean 67 gaztek jaso zituzten laguntzak. Alde horretatik, kontseilariak azpimarratu du "2015ean laguntzarik gabe